



XOUSE SIMAL

Sei emakumezko dira Aldarten lana egiten dutenak.

Aldarte, gay eta lesbianentzako laguntza

Lesbiana eta gay taldeek diskriminazioaren kontra eta sexu aukera guztiek aintzat har ditzan gizarte berri baten alde dihardute. Baina hori ez da aski. Oraindik ere, kolektibo hauen lana ez da nahikoa bakardadean gizarte presioaren estutasuna jasan eta beren sexu aukera onartu ez dutenen premiei erantzuteko.

Sei emakumek —psikologo bi eta soziologo, bibliotekari, historikari eta administratibo bana— gay, lesbiana eta sexualitate 'zuzenaren' barruan kokatzen ez diren pertsonen laguntzeko Aldarte zentroa jarri zuten martxan Bilbon orain bost hilabete.

Gay eta lesbiana mugimenduak kolektibo lez dituzten arazoei erantzuten dien arren, ez da nahikoa premia pertsonalei ihardesteko. Osasun zentro ofizialak ere ez dira gai beharizan hauei aurre egiteko, besteak beste, mota honetako laguntzarik eskaintzen ez dutelako, edo alor honetan esperientziarik ez daukatelako, edo pertsona hauek pilulekin 'osatu' behar diren gai-oxoak direla irizten diotelako.

Gauzak horrela, sei emakume hauek, gay eta lesbianen aldeko mugimenduetako partaideak, hutsune hori bete nahi izan dute, laguntza eta informazio profesionala eskainiz. Aldarte zentroa aitzindaria da Espainiako esta-

tuan, eta horrelako zerbitzu bat aurkitzeko Holandara edo EEB-Betara hurbildu beharko genuke. Aldarte zentroko Ana Urangak dioenez, «zentroak gay eta lesbianen beharizan existentzialari aurre egiteko gune izan nahi du: harremanetan jarri, informazioa eta irakurgaiak eskuratu, girora sartzen eta bazterketa soziala gainditzen lagundu, laguntza emozionala eta soziala eskaini eta abar».

ZERBITZU INTEGRALA ESKAINI Sei emakume hauek zuzentzen duten Aldartek zerbitzu integrala eskaintzen du: laguntza psikologikoa, lege aholkularitza, sexu askatasunari buruzko ikerketa eta aholkularitza zentro bat eta mahainguru, hitzaldi eta mintegien prestaketa.

Bi psikologoek zuzentzen duten kabinete psikologikoa beren sexu aukera onartzen ez duten pertsonen dago zuzendua bereziki. Horrez gain, beren buruak gay eta lesbianentzat onartuta ere, se-

xu aukerarekin zerikusirik ez duten arazoak medio, edonork behar izan lezakeen laguntza psikologikoa ere eskaintzen du kabineteak.

«Kabinetera datozenek mota guztietako arazoak dituzte. Batzuek gay edo lesbiana direla onartzen duten arren, ez dira auzartzen familia edo lagunaren aurrean esaten eta ez dakite zer egin. Beste batzuek ez dute sentitzen dutena onartzen, gaixotasuna dela deritzotelako. Baina batzuk erabat galduta daude, harremanak hasteko ez dakitelako nora joan».

Sexu askatasunari buruzko dokumentazio zerbitzuan, berriz, material idatzi eta grafikoa biltzen dute gai hauen inguruan: homosexualitatea, lesbianismoa, sexualitatea, homosexualitatearen historia, literatura edo politika eta homosexualitatea. Era berean, materialari buruzko informazio eskaini eta gai hauei buruzko ikerketa bultzatzen dute.

Lege Aholkularitzari dago-kionez, zentroak gay eta lesbianen legezko eskubideei (adopzioa, etxebizitza, hereden-tziak...) buruzko informazioa eskaintzen du. Aldartek, zerbitzu juridiko propiorik ez badu ere, harremanak ditu abokatu bulego batekin. Azken hauek arduratzen dira, beraz, beren eskubide, lan auzi edo eraso baten erantzun judizialari buruzko aholkularitza ematen horrela eskatzen duenari.

ez ahaztu!

ALDIZKARIAK

- **'Gay Hotsa'** (EHGAMen informazio aldizkaria)
1.667 postakutxa, Bilbo 48.080
Prezioa: 300 pezeta (13 libera)
- **Sorgiñak** (Euskadiko Lesbiana Feministen Kolektiboaren informazio aldizkaria)
985 postakutxa, Donostia 20.080
- **'Xut'** (aldizkari pornoerotikoa)
1.667 postakutxa, Bilbo 48.080
Prezioa: 200 pezeta (9 libera)

LIBURUAK

- **'La amante celeste'** (Maitale zerutiarra)
Egilea: Rosanna Floccheto
Bilduma: La llave la tengo yo
Argitaletxea: horas y HORAS. Madril, 1993
- **'Elementos de crítica homosexual'** (Kritika homosexualerako elementuak)
Egilea: Mario Mieli
Bilduma: La educación sentimental
Argitaletxea: Anagrama.artzelona, 1980
- **'Homosexualidad hoy'** (Homosexualitatea gaur)
Egilea: Antoni Mirabet
Argitaletxea: Herder.artzelona, 1984
- **'La homosexualidad'** (Homosexualitatea)
Egilea: Michael Ruse
Bilduma: Teorema mayor
Argitaletxea: Catedra. Madril, 1989
- **'La sociedad rosa'**
Egilea: Oscar Guasch
Bilduma: Argumentos
Argitaletxea: Anagrama.artzelona, 1992
- **'Historia de la sexualidad'** (Sexualitatearen historia)
Egilea: Michel Foucault
Argitaletxea: Siglo XXI
- **'Homosexuales ante la sociedad enferma'** (Homosexualak gaixotutako gizartearen aurrean)
Egilea: VVAA
Bilduma: Acracia
Argitaletxea: Tusquets.artzelona, 1978
- **'Homosexualidad, literatura y política'** (Homosexualitatea, literatura eta politika)
Egilea: Steiner / Boyers
Bilduma: El libro de bolsillo
Argitaletxea: Alianza Editorial. Madril, 1985
- **'La homosexualidad sin prejuicios'** (Aurriritzirik gabeko homosexualitatea)
Egilea: George Weimberg
Bilduma: Libertad y cambio
Argitaletxea: Gedisa. Madril, 1977
- **'La cuestion homosexual'** (Homosexualitatearen auzia)
Egilea: C.A. Tripp
Bilduma: Nuevos Temas
Argitaletxea: Edaf. Madril, 1978
- **'Primeros movimientos en favor de los derechos homosexuales: 1864-1935'** (Homosexualen eskubideen aldeko lehendabiziko mugimenduak: 1864-1935)
Egilea: John Lauritsen
Bilduma: Cuadernos infimos
Argitaletxea: Tusquets.artzelona, 1977
- **'Mujeres lesbianas'** (Emakume lesbianak)
Egilea: Victoria Sau
Argitaletxea: Zero ZYX
- **'Homosexualidad y represión'** (Homosexualitatea eta errepresioa)
Egilea: Manuel Soriano Gil
Argitaletxea: Zero ZYX
- **'Placer y peligro'** (Plazerra eta arriskua)
Egilea: Carol S. Vance
Bilduma: Hablan las mujeres
Argitaletxea: Talasa. Madril, 1989
- **'Mujeres que aman a mujeres'** (Emakumeak maite dituzten emakumeak)
Egilea: Terry Woodrow
Bilduma: Ser mujer
Argitaletxea: Robinbook.artzelona, 1992
- **'Cris & Cris'**
Egilea: M. Felicitas Jaime
Bilduma: La llave la tengo yo
Argitaletxea: horas y HORAS

Musu emateak ez du hiltzen, aurreritziak eta axolagabekeriak bai



S A R

HADI HIESAn

EGUNERO!!!

AUTONOMIA, 56 -3.EZK.
Tfnoa: 422 12 40
BILBO

AURREKOETXEA, 27
Tfnoa: 688 35 42
BERMEO

Garantziatzen
hitz egitea